

Programa

Greziar literaturaren transmisioa

Euskarriak: harriak, buztinkiak, buztinezko oholtxoak, metalezko xalak, zurezko oholtxoak, hostoak, etabar.

Iliada-ren testigantza

πέμπε δέ μιν Λυκίην δέ, πόρεν δ' ὄ γε σήματα λυγρὰ
γράφας ἐν πίνακι πτυκτῶ θυμοφθόρα πολλά,
δειῖξαι δ' ἠνώγειν ᾧ πενθερῶ ὄφρ' ἀπόλοιτο.

Iliada VI, 168-171

“(Anteak Belerofonte) Lidiara bidali zuen eta seinu deitoragarriak eman nizkion, seinu ikaragarri hilgarri horiek **oholtxo bikoitzean** idatzi zituen, eta bere aitagarrebari erakustea agindu zion honek (Belerofonte) hil izan zezan”

Garrantizko euskarriak: papiroa, larruzko horriak, pergaminoa.

«Liburuen» itxurak: bilkariak, kodexak

Erdi Aroan paperaren erabilera zabaldu zen mendebaldean. (ur markak)

1440: Johannes Gutenbergek inprenta asmatu zuen.

Programa

Iliada eta *Odisea* greziar literaturaren lanik antzinakoenak dira

Lan horien konposizioa ahozkoa izan omen zen

Testu «kanonikoa» lehenengo aldiz finkatu zen Atenasen Pisistratiden garaian.

Ezagutzen ditugun *Iliada* eta *Odisea* Alexandriako filologoek garaino atzera jo daiteke, agian ez ziurtasun osoz, baina jakina ziurtasun handiz.

Homeroren baino lehenago olerkigintza:

Ahozko tradizio luze bat, bai epikoa bai beste motatako bat

Homeroren baino lehenago epikaren zeharkako testigantzak:

Iliadan, Akilesek berak τὰ κλέα ἀνδρῶν (heroien ekintza gogoangarriak) abesten ditu.

Odisean, kantu epikoak abesten dituzte bi aedok: Itakako Femio, Feaziarren uharteko Demodoko

Programa

Demodokori buruz esaten da Odisearen VIIIarren rapsodiaren 63-64 lerrotan:

«eta heraldoa Demodoko leialarekin hurbildu zen, aedo hori ikaragarri maitatu zuen Musak, eta ona eta txarra eman zizkion: begien argia kendu zion, baina goxoro abesteko ahalmena ere».

fuerunt ante Homerum poetae esaten zuen Ciceronek

Baina, Homeroren lanetan beste motatako kantak edo beste genero poetikoak ere agertzen dira:

Línos : herriko hileta-kantua

Hyménaios : ezkontza-kantua

Thrénos : arrangura/deitore/hileta-kantua

Paiéon-Paián : garaipen/gerrate/alaitasun-kantua, eskerrak emateko kanta

Olerti epikoak lelo baten moduan abesten zen hari-instrumentu baten akonpainamenduz

Iliada-k hamasei mila lerro inguru ditu, *Odisea*-k, berriz, hamabi milla.

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Homeroren lanak

Iliada

Odisea

Beste Homeroren lanak (pseudohomerikoak?)

Himno homerikoak (33, data ezberdinetakoak)

Margites (olerti komikoa)

Batramiomakia (= «Igelen eta saguen gerra»)

Homeroren *epigramak* (15, testu ezberdinetan kontserbatu dira)

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Ziklo epikoak

«Zikloa»-ren esanahia: Antzinekoek bere tradizioaren kontaketa mitiko jakinak sailkatzen zituzten «zikloetan», hots, narrazio mitiko handiagoaren pasarte desberdinak zeuzkaten olerkien taldetan.

Zikloen gaiak:

Munduaren jatorria (*Teogonia*, *Titanomakia*, etab.). Hesiodoren *Teogonia* kontserbatu da; beste olerkien kasuan, zati batzuk eta zeharkako aztarnak ditugu, besterik ez.

Heraklesen istorioak

Argonauten elezaharrak eta kondairak

Atrida familiaren istorioak (ikus., esate baterako, Eskilo-ren *Orestiada*, Sofokles-en *Elektra*, Euripides-en *Orestes*)


Ziklo tebastarraren elezaharrak eta istorioak (ikus., esate baterako, Eskilo-ren *Tebasen kontrako zazpiak*, Sofokles-en *Edipo erregea*, Euripides-en *Bakanteak*)

Ziklo troiatarraren elezaharrak eta istorioak (*Iliada*, *Odisea*, *Kantu zipriarrak*, *Etiopida*, *Iliada txikia*, *Troyaren suntsiketa*, *Telegonia*; ikus., esate baterako, Eskilo-ren *Agamenon*, Sofokles-en *Filoktetes*, Euripides-en *Emakume troiarrak*).

Itzulerak (Nostoi; *Odisea*, *Telegonia*; ikus. Euripides-en *Helena*)

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Homero eta Kalioppe



LITERATURA GREKOA: Sarrera

Homeroren hizkuntza, neurkera eta teknika narratiboak

Hizkera

Neurkera

Epitetoak

Formulak

Eszena tipikoak

Alderaketa/Similak

Narrazioa egiteko erak

Katalogoak

Oker bideratutako galderen teknika.

Aurreratzea/Prolepsis

Berandutzea

Anakronismoa

In media res

Ironia

Berrezagutzea

Abegia

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Homeroren hizkuntza

«—(Homerok) ibai batez hitz eginen zuenean guk Escamandro deitzen diogun ibairi Xantos jainkoek deitzen ziotearen berri ematen digu; eta hark berak, hala ere, gogoratzen du, egia esan, azken izenarekin bere bere neurtitzetan, esan nahi izango balu bezala grekoen hizkera ezberdinak nahasteko prest zegoela eta gai zela; eta, horiek horrela, dio aldi batzuetan eolioeraz mintzatzeko prest zegoela; beste aldi batzuetan, dorieraz; beste batzuetan, joinieraz; beste batzuetan, berriz, baita jainkoen hizkeraz ere».

Prusako Dion -Lehen mendearen bigarren erdikoa, Kristoren ondoren-, 11garren Hizaldia

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Homeroren hizkuntza

«(Homerok) ez zuen hizkuntza edo hizkera - mota bakar bat aukeratu, baizik eta orduan arte bananduta zeuden dialekto greziar guztiak hartu zituen eta elkartu zituen: joniera, doria, baita ateniera ere. Koloreekin tindatzaileak egiten duten moduan baino gehiago nahasi zituen hizkerak, ez zituen soilik bere garaiko hitzak erabiltzen, baizik eta askoz ere zaharragoak zirenak ere. Eta esaldi edo esaera bat nonbait bizirik ateratzen bazen, berak, hizkuntzaren eta hizkeraren zaletasunagatik, jasotzen zuen jaberik gabeko txanpon zaharra izango balitz eta kutxa gotor bat barruan aurkituko balu bezala».

Prusako Dion -Lehen mendearen bigarren erdikoa, Kristoren ondoren-, 12garren

Hizaldia

Homeroren hizkuntza

«(Homero) "kutsu askotako hizkuntza eta hizkera" erabili zituen, dialekto greziar ororen berezko elementuak nahasiz. Hartatik argi eta garbi ondorio daiteke Greziako txoko guztiak bisitatu zituela eta herri guztiak ezagutu zitula... Beraz, nabaria da (Homerok), greziar guztien hitzak erakarriz eta erabiliz, hark bere diskurtsori aniztasuna ematen zion eta noizbehinka ezohizko hitzak (lehenago aipatu direnak bezala) erabiltzen ditu; beste aldi batzuetan, hitz arkaiko batzuk, ἄορ [áor] (= ezpata) eta σάκος [sákos] (= ezkutu) diozenean bezala; beste aldi batzuetan, ohiko hitzak, ordea, ξίφος [ksífos] (= ezpata) eta ἄσπίς [aspís] (= ezkutu) diozenean bezala. Eta norbera harri dezake zein modutan, Homeroren lanetan, ohiko hitzek ere diskurtsoaren noblezia mantentzen duten ikusteak»

(Pseudoplutarko, *Homerori buruz*, II 8 eta 14)

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Homeroren hizkuntza

Hizkuntza/Hizkera homerikoa

Hizkuntza/Hizkera homerikoa dialekto desberdineko amalgama da; antzinakoek jada zekiten; barne doriera ere sartzen zuten, nahiz eta bere absentzia agerikoa izan. Nahaste linguistiko hori bere mundu greziar osorako proiektzioagatik nabarmentzen zen, eskolio askok seinalatzen dituzten bezala.

Aditu batzuek hizkuntza/hizkera artistikoaz (*Kunstsprache*-z) egiten dute mintzo. Metroaren garrantzia ere aldaketa morfologiko eta prosodikoetan nabarmentzen da. Beraz, hiztun-komunitate batek inoiz ez zuen horrelako hizkuntza/hizkera erabili; bere araei men egiten zien hizkuntza/hizkera poetikoa zen, besterik ez.

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Homeroren hizkuntza

Kontserbatuta testuen dialekto nagusia joniera da horrelako hizkeran eta joniatarren eskualdetan batez ere poesia epikoa lantzen ari zelako lehen aldian lan hauek idatziz jarri zirenean. Dialekto eolieraren elementu asko daude; aditu batzuek geruza zaharragoko hondartzat hartzen dute. Dialekto Arkadioziprioteraren elementuak ere dokumentatzen dira –mizenastarrari hurbiltzat hartzen dira-. Esaten da dialekto atikoaren elementuen presentzia testu homerikoaren lehen edizioaren ondorioa dela Pisitratiden garaian.

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Homeroren hizkuntza ia greziar hiztun mundu orok ulertzen zuen, baina ez zen inoiz hitz egin.

Bere material linguistikoa hainbat dialektoz osatuta dago eta garai askotatik dator. Homeroren hizkuntzaren oinarria gure aroaren aurreko VIII.garren mendean sortu zen; joniar dialektoa zen, Asia Minoreko kostaldean erabiltzen zena.

Eoliar dialektoaren elementu asko daude, baita garai Mizenikoraino atzera jotzen duten formak askoz ere zaharragoak ere.

Elementu dorikoak ez dira existitzen; bestalde, noizbehinka agertzen diren forma atiko batzuk geroko gehikuntzak eta eransketak izan daitezke.

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Zenbait dialekto edo periodoetatik sortutako sinonimo askoren existentzia baliabide metrikoak izan ziren olerkariarentzat, neurtitzaren lekuaren arabera, esanahiari zegokion hainbat hitz baliokideak zirenen artean bat erabil zezakeen.

Esate baterako, bigarren pertsonaren izenordain pertsonalak, *σοῦ-k* baditu forma baliokide batzuk: *σεῖο*, *σέθεν*, *σέο*, *σεῦ*.

σοῦ silaba luze bat

σεῖο silaba luze bat eta beste bat motza

σέο bi silaba motzak

σέθεν bi silaba motzak, kontsonante batean bukatzen da

Epitetoak

Epitetoak epika homerikoan maizkoak dira, eta laguntzen dituzten pertsoneri eta gauzei ezaugarri funtsezkoak ematen dizkiete.

Epitetoek, batzuetan ezaugarri bereizgarri bat azpimarratzen dituzte: «Gizon artetsua» «Orestes ospetsua»; eta, beste batzuetan, bere irudi bat proiektatzen dute, hau da, epiteko deskribatzaileak dira; esate baterako, «kobazulo ahuretan», «txirikorda ederretako nereida» edo «soineko disdiratsua».

Antzinean esaten zen epitetoak erabiltzen zirela zentzu orokor batean, ez testinguruaren arabera.

Formuleen teoriaren arabera epitetoak oso garrantzitsuak ziren formulak neurtitzen oinetan sartzeko eta moldatzeko. Hurrengo atalean hiz egingo da formulei buruz. Epitetoak bere balio metrikoarengatik erabiltzen ziren, ez bere zentzuarengatik.

Epitetoak

Formuleen teoriaren arabera epitetoak oso garrantzitsuak ziren formulak neurtitzen oinetan sartzeko eta moldatzeko. Hurrengo atalean hiz egingo da formulei buruz. Epitetoak bere balio metrikoarengatik erabiltzen ziren, ez bere zentzuarengatik.

δῖος Ὀδυσσεύς («Odiseo jankotiarra»),

ἔσθλός Ὀδυσσεύς («Odiseo adoretua») (dieresis bukolikoa),

πολύμητις Ὀδυσσεύς («Odiseo oso zuhurra/artetsua») (heptemimerikoa),

πολύτλας δῖος Ὀδυσσεύς («Eraman handiko Odiseo jankotiarra») (pentemimerikoa).

φυσίζοος αἶα «lur emankorra» (*bizitza sortzen duen lurra*). Helenak Toiako harresian bere nebei buruz hitz egiten duenean.

Horiek horrela, tradizionalki eztabaidatu da epitetoen baliori buruz ea poetek bere zentzua hartzen duten ala bakarrik bere balio metrikoa hartzen zuten kontuan.

Horren kausaz adituek bereizketak eta epitetoen saikapenak egin dituzte; esate baterako,

Parry-k epiteto *edergarriak (ornamental)* eta *nabarmendutakoak (particularised)* bereizten ditu; lehenengoak bere balio metrikoagatik erabiltzen dira; bigarrenak, berriz, neurkeran eta zentzuan dautza, hau da, testuinguruko garrantzia ere badute (Parry-en hitzetan, momentuaren ekintzari zuzenean eragiten diote «directly to the action of the moment»).

Gero *nabarmendutako*-en artean ere bereizketak egiten ditu:

a) epiteto determinatzaileak —*χολωτοῖσιν ἐπέεσιν* (= haserre-hitzekin), *ἀγανοῖς ἐπέεσιν* (= hitz atseginekin) —;

b) balio metriko berdinak dituzten epitetoak —beraz, aedok aukeraratzeakoak ditu—; esate baterako, *διΰφιλος* (= Zeusentzat karioa), *πελώριος* (= erraldoia);

c) bere izenaren ondoan ez dauden epitetoak —*παῖδα δ'έμοι λύσαιτε φίλην* (*Iliada* I, 20) (= «aska ezazue nire alaba maitatua») —;

d) zamalkatutako lekuan dauden epitetoak —*μῆνιν ἄειδε, θεά, Πειριάδεω Ἀχιλλῆος / οὐλομένην* (*Iliada* I, 1-2) abes ezazu, jainkosa, Akiles Pelida-ren haserrea, / hilgarria dena—

Neurkera

Iliadaren eta Odisearen metroa/neurtitza hexametro daktilikoa da. Oin daktilikoan datza;

Oin hori silaba luze batez eta bi laburrez osatuta dagoen unitatea da;

horrelako oina daktilo deitzen da

(bi silaba laburrek iraupen luzeko silaba bat bete dezakete; beraz, bi silaba luzetako oina agertzen bada, oin daktilikoa espondeo —oin espondaiko— bihurtzen da).

Neurtitz bakoitza sei oin metrikoez osatuta dago.

Lehenengo bost oinak daktiloak dira eta seigarrena bi silabatan banatuta dago; lehenengoa luzea da nahitaez; bigarrena, berriz, axolagabea.

Guztira, neurtitz bakoitza hamabi edo hamazazpi silabaz inguru osatuta egon daiteke. Bertsoaren erdian, gutxi gorabehera, pauso indartxua —etena, zesura— dago, baita beste txikiago edo ahulago batzuk ere badaude; eten horiek guztiak lerroa azpiunitate txikiagoetan banatzera heltzen daitezke

Bosgarren oina espondaiko izan behar da, hau da, bi silaba luzez osatutakoa.

Formulak

Milman Parry-k adierazten du formularen definizioa:

«expressions regularly used, under the same metrical conditions, to express a given essential idea»

«normalean erabiltzen diren adierazpenak, baldintza metriko berberetan, funtsezko ideia bat adierazteko»

Ahozko tradizio epikotik Homerorek gai estereotipatu multzo bat jarauntsi zuen, kasu bakoitzaren beharraren arabera bai narrazioari bai metroari egokitzen ziona.

Unitate tipikorik txikienak esaldi edo sintagma laburrak dira, izen eta izenlagunaz osatuta daudenak hain zuzen. Neurtitzan betetzen duen lekuaren arabera, formula ezberdinak edo, hobe esanda, formularen aldaerak sortzen dira:

Παλλὰς Ἀθήνη [Pallás Athéne] (Palas Atenea), bost silaba


γλαυκῶπις Ἀθήνη [glaukópis Athéne] (begi urdineko Atenea), sei silaba

θεὰ γλαυκῶπις Ἀθήνη [theá glaukópis Athéne] (begi urdineko Atenea jainkosa), zortzi silaba.

Formulak

Batzuetan, izenlagun tipikoak erabiltzen dira, nahiz eta testuinguruko mugak ez duten erabilera baimentzen. Hedadura handiagoen formulak erabiltzen dira elkarrizketaren hasiera edo amaiera, heroi baten abiatzearen edo borroken gorabeherak adierazteko.

Hexametro homerikoaren egitura



τόν

δ' αὐτε προσέειπε

τήν

θεὰ γλαυκῶπις Ἀθήνη
 μέγας κορυθαίολος Ἑκτώρ
 ἀναξ ἀνδρῶν Ἀγαμέμνων
 Γερήνιος ἱππότα Νέστωρ
 πολύτλας δῖος Ὀδυσσεύς

Eta orduan esaten zion

Atenea, begi dirdiratsiak dituen jainkosa
 oin askarretako Akiles jainkotiarrar
 idi begietako Hera beneragarria
 Nestor, Gereniako zalduna
 asko jasan duen Odiseo jainkotiarrar

Greziar Literatura

τὸν
δ' ἡμείβετ' ἔπειτα
τὴν

θεὰ γλαυκῶπις Ἀθήνη
ποδάρκης δῖος Ἀχιλλεύς
βοῶπις πότνια Ἥρη
Γερήνιος ἱππότα Νέστωρ
πολύτλας δῖος Ὀδυσσεύς

Eta gero erantzuten zuen

Atenea, begi dirdiratsiak dituen jainkosa
oin askarretako Akiles jainkotierra
idi begietako Hera beneragarria
Nestor, Gereniako zalduna
asko jasan duen Odiseo jainkotierra

τὴν (τὸν) δ' αὖτε προσέειπε
τὴν (τὸν) δ' ἡμείβετ' ἐπειτα
αὐτὰρ (δὴ τότε) ὁ μερμήριξε
αὐτὰρ ὁ βῆ διὰ δῶμα
αὐτὰρ ὁ πῖνε καὶ ἦσθε
αὐτὰρ ἐπεὶ τὸ γ' ἄκουσε

πολύτλας δῖος Ὀδυσσεύς

Eta orduan erantzuten zion
Eta gero erantzuten zuen
Gero (orduante hain zuzen) gogoeta egin zuen
Gero bera ibiltzen hasi zen etxean barrena
Gero berak edaten eta edaten zuen
Baina hori entzun eta gero

asko jasan duen Odiseo jainkotierra

TABLE I—NOUN-EPITHET FORMULAE OF GODS AND HEROES IN THE NOMINATIVE CASE; PRINCIPAL TYPES

(An asterisk * indicates that the metre of a name makes a noun-epithet formula impossible in the metre in question)


	Between the bucolic diaeresis and the end of the line —○○—	Between the heptemimeral caesura and the end of the line ○○—○○—	Between the feminine caesura and the end of the line —○○—○○—	Between the beginning of the line and the penthemimeral caesura —○○—○○—	Noun-epithet formulae of different types	Different types of formulae
Ὀδυσσεύς	δῖος Ὀδυσσεύς 60 ἑσθλὸς Ὀδυσσεύς 3	πολύμητις Ὀδυσσεύς 81 πολίπορθος Ὀδυσσεύς 4	πολύτλας δῖος Ὀδυσσεύς 38	διογενὴς Ὀδυσσεύς 4	12	8
Ἀθήνη	Παλλὰς Ἀθήνη 39 [ὄβριμοπάτηρ] 2	γλαυκῶπις Ἀθήνη 26	θεὰ γλαυκῶπις Ἀθήνη 51 Ἀλαλκομενῆς Ἀθήνη 2	Παλλὰς Ἀθηναίη 8	11	6
Ἀπόλλων	Φοῖβος Ἀπόλλων 33	Διὸς υἱὸς Ἀπόλλων 2 ἐκάεργος Ἀπόλλων 6 κλυτότοξος Ἀπόλλων 1	ἄναξ Διὸς υἱὸς Ἀπόλλων 5 ἄναξ ἐκάεργος Ἀπόλλων 3	[Φοῖβος ἀκερσεκόμης] 1	15	5
Ἀχιλλεύς	δῖος Ἀχιλλεύς 34 ὠκύς Ἀχιλλεύς 5	πόδας ὠκύς Ἀχιλλεύς 31 μεγάθυμος Ἀχιλλεύς 1	ποδάρκης δῖος Ἀχιλλεύς 21		10	7
Ζεὺς	μητίετα Ζεὺς 18 εὐρύοπα Ζεὺς 14	νεφεληγερέτα Ζεὺς 30 Ζεὺς τερπικέραunos 4 στεροπηγερέτα Ζεὺς 1	[πατὴρ ἀνδρῶν τε θεῶν τε] 15 Ὀλύμπος εὐρύοπα Ζεὺς 1	Ζεὺς ὑψιβρεμέτης 5	39	24
Ἥρη	πότνια Ἥρη 11	λευκώλενος Ἥρη 3	βοῶπις πότνια Ἥρη 11 θεὰ λευκώλενος Ἥρη 19		3	3
Ἔκτωρ	Φαίδιμος Ἔκτωρ 29 ὄβριμος Ἔκτωρ 4	κορυθαίολος Ἔκτωρ 25	μέγας κορυθαίολος Ἔκτωρ 12	Ἔκτωρ Πριαμίδης 6	11	7
Νέστωρ	ἰππότα Νέστωρ 1		Γερήνιος ἰππότα Νέστωρ 31		7	4
Ἄρης	χάλκεος Ἄρης 5 ὄβριμος Ἄρης 5	χρυσήνιος Ἄρης 1	βριήπνος ὄβριμος Ἄρης 1 Ἄρης ἄτος πολέμοιο 3		12	10
Διομήδης	[Τυδεΐος υἱός] 8	κρατερὸς Διομήδης 12 ἀγαθὸς Διομήδης 1	βοῆν ἀγαθὸς Διομήδης 21		7	5
Ἀγαμέμνων	*	κρείων Ἀγαμέμνων 26	ἄναξ ἀνδρῶν Ἀγαμέμνων 37	[ἦρωσ Ἀτρείδης] 3	15	6

M. PARRY, "The Epithet and the Formula", en A. PARRY, *The Making of Homeric Verse*,


N. York and Oxford, Oxford U.P., 1971, 39.

Instrumentu musikalak


Hari-instrumentuak




1 Phorminx




2 Lyra



3 Kithara




4 Barbiton



5 Kithara


Haize-instrumentuak eta Perkusio-instrumentuak



6 Auloi




7 Syrinx




8 Salpinx



9 Tympanon



10 Kymbala



11 Krotala

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Eszena tipikoak

Errpikapen adierazgarriez gain, gertakari zabalak deskribatzeko ekintzen sekuentzia edo gertaera segida estandarizatuak izan ziren, esate baterako, sakrifizioa, eskaera eta erregua, arrotza baten harrera eta abegia, otordu bat, hileta bat edo borroka berezi bat.

Esate baterako, balentrien kontaketa bat, hau da, heroi baten egitandi multzo bat, hau eredu jakin batean oinarritzen da:

lehenik eta behin heroiaren ekipamendua/panoplia eta horiek janztea deskribatzen dira;

borroka hasten denean, protagonista etsai batzuk hiltzen ditu, etsaiaren armada erasotzen du eta ihes egitea eragiten die etsaiei;

esetsia eten egiten denean zauritzen duenean, baina jainko bati arrenka eskatzeari esker sendatzen da, borrokara itzultzen da eta etsaien buruzagiarekin borroka egiten du;

bat hiltzen da, eta hildakoaren bi alderdiek borroka jarraitzen dute hildakoaren armak eta gorpuababesteko eta hartzeko;

azkenik hildakoaren lagunak eskuhartze jainkotiar bati esker gorputza bereganatzen dute.

Estandarizazioa handia izan arren, eszenak tipikoak agertzen diren bakoitzean, xehetasun ezberdinak hautematen dira beharraren arabera.

Alderaketa/Similak

Homeroren teknikaren ezaugarri berezi bat, dirudienez epika zaharragoan ez zegoena, alderaketa handiak dira.

Adituen arabera, Homerok alderaketa utzi dio Europako literaturari, zeren beste lan batzuek erkaketa laburrak erabiltzaten baituzte, besterik ez.

Homeroren alderaketa hainbat neurtitzetan zehar heda daitezke; bere alderaketen adierazpena oso formulazkoa da, eta beranduko ezaugarri linguistikoak aurkezten dituzte.

Alderaketetarako gaiak Homerok ateratzen ditu mundu naturaletik, eguneroko bizitzatik, gauza apaletatik eta pertsona arruntengatik.

Agertzen diren kontuak, beste hainbeste batzuen artean, dira honako hauek: lehoiak, astoak, txakurrak, otsoak, zezenak, arranoak, belatzak, xartalak, erleak, sugeak, izurdeak; haritzak, zumarrak; elurteak, haizeteak, itsas ekaitzak, basoetako suteak, izartutako gauak, ehiztariak, segalariak, errementariak, arrantzaleak, artzainak, etab.

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Alderaketek leku geografiko zehatzetan ez kokatzeko joera erakusten dute, nahiz eta kasuren bat egon;

pertsonak, alderaketetan, anonimoak dira; akzioak, denboragabeak.

Orokorrean, Alderaketek fenomeno ezagunak entzulearentzat erakusten dituzte eta narrazioaren osagai baten bat erakusten eta argitzen dute:

Iliada-n alderaketak adieraz dezake zeharkako eran gerrako munduan gertatzen dena, nahiz eta gerrari dagokionez kontrastea ere adierazi ahal izan, «konparazio baketsuak» aurkeztuz;

Odisean, dirudienez, ez daude narrazioarekin hain hertsiki lotuta, Iliadan dauden bezala.

Iliadan, pasarte askotan, alderaketek narrazioaren elementu garrantzitsua azpimarratzen dute;

esate baterako, (Iliada XXII, 22-32) heroi baten mugimendua eta eitea;

baita gerlariek egiten duten zarata ere (Iliada III, 2-7),

edo lekua, tarteaz azaltzen denean (Iliada XXIII, 845-847).

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Homeroren alderaketak ospetsuak izan dira, eta dira, luzeak izateagatik (Iliada III, 2-7 (zarata), 10-14, 23-26, 30-37).

Ikus. baita Iliada II, 455-493 (ikusi similak eta Museei egidako eskaera).

Alderaketen erarik erabilienak:

1.- Egitura: Norbaitek zerbait egiten du, batek bezala; horrela norbaitek zerbait egiten du (Iliada XXII, 22-32)

2.- Egitura: Norbaitek zerbait egiten du, batek –enean bezala; horrela norbaitek zerbait egiten du (Iliada XXII, 92-97)

2.- Egitura: batek –enean bezala; horrela norbaitek zerbait egiten du (Iliada XXII, 162-166,)

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Homeroren lanen edukia eta egitura

Iliada-k (16.000 lerro inguru) ez du kontatzen Troiako Gerraren garapen eta osotasunik, tituluak sinestea eragin liezagukeen bezala; olerki epikoaren akzioa, egia esan, kokatzen da bederatzigarren gerra-urtearen amaieraren pasarte batean (denborazko lokalizazioa argi egiten da Bigarren Rapsodiaren 134 eta 295 lerrotan); berrogeita hamar egun inguru irauten duen ekintza bat kontatzen da. Iliadaren *hitzaurreak* Akilisen haserrea, gutxi gorabehera ikus daitekeen ekintzaren haria, jartzen du bilbearen zentroan, nahiz eta ekintza puntu askotan gorapilatsuagoa izan.

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Homeroren lanen edukia eta egitura

Bukaeran pasarte tragikoa, olerki epikoaren mugetan kokatuta, heroi troiar garrantzitsuen eta Troia hiriko defendatzailearen hilketa izango da, Hector, Priamo-ren semea eta Paris-en anaia, Akilosen esku; hiriaren -Troyaren- geroko erorialdiaren aurreikuspen nabaria da argi eta garbi; horrelako geroko erorialdia iradokitzen da behin eta berriro Iliada-n (II 32..., XII, 10..., XV, 15...), nahiz eta Iliadan beran ez gertatu eta nahiko urrun egon .

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Lehenengo Rapsodia

Olerkia hasten da Krisis-en -Apoloren apaizaren- kanpamentu greziarrera heltzearekin, hari Kriseida bere alaba itzul diezaiotela; Kriseida Agamenon-i, Menelaoren anaiari eta Akear armadaren buruzagiari, gerra harrapakin bezala eman zioten Akearrek. Agamenon-ek apaiz zaharra botatzen du modu txarrenetan. Apaizak mendekua Apolori eskatzen dio; eta jainkoak Akearr-en armadan sarraskia egiten duen izurria bidaltzen du.

Hamargarren egunean batzarra deitzen da, eta Kalkas aztiak haserre jainkotiarren arrazoiak ezagutarazten ditu, baina Agamenon-ek neskatxa emateari uko egiten dio; honek horren ondorioz eztabaida zurrunbilotsua eta liskar tirabiratsua du Akilesekin, grekoen arteko gerlari gaien eta ospetsuarekin; liskarraren amaieran Agamenon-ek Kriseida itzultzea erabakitzen du, baina, konpentsazioan, eta Briseida, Akiles-en gerra harrapakina, hartzea erabakitzen du. Akiles, Armadaren buruzagiaren portaera baldarrak bere pertsonarekiko irainduta, batzarreko borrokaren ondoren, gudu-zelaitik suminduta erretiratzen da eta bere zauritutako ohorea asetzebetzeko ekintza bat eskatzen dio bere amari, Tetis jainkoari.

LITERATURA GREKOA: Sarrera

Tetis Olinpora igotzen da eta bere semearen ohorea leheneratzeko promesa ateratzen dio Zeusi; jainkoen eta gizonen erregearen plana betetzen da troiarrei garaipenaren ematearekin; egoera horrek grekoak porrotera eramaten ditu; eta horren ondoriz, Akiles-ek gudu-zelaira itzuli behar izango du, gerraren martxa aldatzeko.

2-4garren rapsodiak

Badirudi Zeusen plana martxan jartzen dela; Zeusek amets engainagarria Agamenon-i bidaltzen dionean, Agamenonek, Troiaren aurkako eraso erabakigarriari, hurrengo egunean, ekin izatera bultzatzeko, hain zuzen; baina, egia esan, Zeusek abiarazten du porrot ezin okerragoa jasan dezala. Hala ere, bilbearen oinarrizko garapena, hain trebeki prestatu zena, puntu honetan berandutze eta geldia jotzeak jasaten hasten da, kasu batzuetan plana atzeratzen da ekintzaren haria ez mozteko.

Indar militarren aurkezpena egin ondoren, Akearren ontzien Katalogo ospetsuan eta troiaren aliatuen Katalogoan (bigarren rapsodiaren bigarren zatian) egiten dituenean, gerra mozten da eta akordatzen da liskarra amai daitekela Paris-en eta Menelao-ren arteko borroka pertsonalaren bidez (gerraren kausak laburtzea dirudiena, Helena-ren bahitzailearen aurrean eta aurka iraindutako senarra jarriz). Hala ere, borroka berezi hori eteten da, zeren Afrodita, esku-hartuz, Paris, porroteko zorian zegoena, salbatzen baituen. Borroka bereziaren etenaren ondoren, Pandaro troiarrak menia hausten du Menelao-ri gezi batez zaurituz; Menelao sumintzen da ia-ia funski azpiraturako etasaia salbatu dela ikusterakoan

LITERATURA GREKOA: Sarrera

5-8garren rapsodiak

Borrokak txandakako faseekin hasten dira, horrelako borroken artean nabarmentzen da eszena bat Diomedes heroi Akeoarra jartzen duen *aristeia*, bosgarren rapsodian. Eszena gerrazaleen segida parentesi familiar batekin eteten da, pasarte sentimentala (seigarren rapsodian) den batekin: Hectorrek topaketarena, Troiako harresi barruan bere amarekin Hekaberekin eta bere emaztearekin, Andromakarekin, eta bere seme txikiarekin, Astianakterekin, topo egiten du. Pasarteak transmititzen du azkar heriotzarantz dabilen Hektor-en azken agurraren sentsazioa, baina, nahiz eta Hektor-en heriotza iragarri izan, oraindik asko urrun dago, eta, ekonomia epikoaren esparruan, geldotzen da era bereizgarrian, bereziki pentsatzen badugu zein sarritan agertzen den behien eta berriro aipatutako motiboa, Hektoren heriotzaren iragarpena hain zuzen.

Beste borroka singular baten ondoren, Hektor-en eta Ajax-en artean (era desberdinean, aurreko borroka bereziaren gaia konparatuz, errepikatzen duen borroka), borroka ordoki guztitik hedatzen da. Olinpon Zeusek heriotzaren patuak jartzen ditu balantzan eta Akearr-en (8garren rapsodian) suntsiketa hurbiltzen dela egiaztatzen du; honela hasierako plana entzulearen memorian berpizten da, eta gauaren heldueraren kariaz egun horretako etsaitasunen amaiera heltzen da.

LITERATURA GREKOA: Sarrera

9-10garren rapsodiak

Akearren buruzagiek erabakitzen dute Akiles-engana enbaxada bidaltzea (Ajax, Ulises eta Akiles-en maisu-zaharra, Fenix, osaten dute enbaxada) ea konbentzitzen duten bere Mirmidonarr-ekin borrokara itzultzen dadila, baina espedizioa alferrikakoa da. Akiles tematzen da bere isolamenduan haserre eta erdeinua (10garren rapsodian). Gauean zehar, buruzagiek, batzarraren ondoren aztertze-espedizio bat saiatzea erabakitzen dute; Diomedesek eta Ulisesek egingo dute. Gauza bera erabakitzen dute troiarrek ere, eta bere aldetik Dolonas espioi-espedizioaz arduratzen da, baina Diomedesekin eta Ulisesekin topo egiten du, eta haiek hiltzen dute.

Jarraian bi heroi greziarrek Reso eta bere soldadu traziarrak suntsitzen dituzte eta, azkenik, bere kanpamentura itzultzen dira. Hau da hamarren rapsodia arazotsuaren edukia, jada antzineko irakurleen artean zalantzak inkoherentzia jakin batzuen kausaz agertu ziren, puntu batean bereziki informazio zahar batek dio Homerok rapsodia hau bereiz osatu zuela, eta Iliada-ri beranduago soilik batu zitzaion .